

Ikerkuntz deialdia zabaldu da
UPV-EHUko hezkuntz sistema
aztertzeko.



Ikerkuntz deialdia zabaldu da
UPV-EHUko hezkuntz sistema
aztertzeke.



*Ikerkuntza(-)*deialdia zabaldu da
UPV-EHUko *hezkuntza(-)*sistema
aztertzeke.



Izen batzuek berezko “a” bokala daukate bukaeran; “a”
itsatsia esaten zaio, eta ez da NOR kasuko
mugatzailearekin nahasi behar:

anai**a** bat

giltz**a** hau

botil**a** hori

erreferentzi**a** bat

simetri**a** hori

emaitz**a** bat

gauz**a** bat

mail**a** egokia

orden**a** horretan

makil**a** ederra

* anai bat

* giltz hau

* botil hori

* erreferentzi bat

* simetri hori

* emaitz bat

* gauz bat

* mail egokia

* orden horretan

* makil ederra



Beraz, hitz elkartuaren lehenengo osagaiak “a” itsatsia badu:

- ugalkuntza(-)tasa
- arrautza(-)oskola
- giltza(-)baraila
- ugalkuntza(-)garaia

Eta ez:

- *ugalkuntz(-)tasa
- *arrautz(-)oskola
- *giltz(-)baraila
- *ugalkuntz(-)tasa



Euskaltzaindiaren 25. arauaren arabera, honako bi kasu hauetan bakarrik ken daiteke “a” hori:

a) Lehenengo osagaiak “-ia” bukaera duenean:

● erreferentzia(-)gunea

● energia(-)tasa

● simetria(-)ardatza

● ...

● erreferentzi gunea

● energi tasa

● simetri ardatza

● ...

Baina ez marratxoarekin:

■ *erreferentzi-gunea

■ *energi-tasa

■ *simetri-ardatza



Euskaltzaindiaren 25. arauaren arabera, honako bi kasu hauetan bakarrik ken daiteke “a” hori:

b) Lehenengo osagaia sei izen hauetako bat denean:

kultura, literatura, eliza, burdina, hizkuntza, natura

- kultura(-)etxea
- literatura(-)saria
- burdina(-)sarea
- hizkuntza(-)eskola
- natura(-)gunea

- kultur etxea
- literatur saria
- burdin sarea
- hizkuntz eskola
- natur gunea

Baina ez marrazkoekin:

- *kultur-etxea
- *literatur-saria
- *burdin-sarea
- *hizkuntz-eskola
- *natur-gunea



OHARRA:

Euskal IkasMaterialgintza

EHUko Euskara Zerbitzuak, EIMArekin
jokabidearekin bat eginez, “a” itsatsia mantendu
eta marratxoa erabiltzea bultzatzen du.

- simetria-ardatza
- erreferentzia-sistema
- energia-tasa
- kultura-elkartea
- hizkuntza-gaitasuna

